

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hotzikara.
Hotzikara.
Autoekoizpena.
Iraupena: 32'04".
5 euro.

Muturreko egoerak neurtzen jakitea

JAKINA DA Euskal Herriko metal eszena emankorra dela: talde gogorragoak, heavyagoak, melodikoagoak, ilunagoak... askotarikoak aurki daitezke, baina behin baino gehiagotan 1990eko hamarkadako thrash-core taldeen hutsunea igarri dut. Usurbilgo gazte hauek, baina, jakin dute haien espiritua berreskuratzen –seguruenik izango du eraginik Mikel Kazalisekin grabatu izanak ere– eta horri, gainera, bestelako keinuak eta estiloak gehitu dizkiote.

Hala, aipatutako amorrazio estiloaz gain, rap metaleroa, rock dezente, metal pisutsua, heavya, flamenko tankak eta beste aurki daitezke tarteka ahots guturalak gidatzen duen bidaia honetan. Oreak bilatzen dute, eta horrek emaitza aberasten du. Euskaraz abesten diete hotzikara eragiten dieten gauza askori: espetxeei, politikariei, justiziari, kontrolari...

www.hotzikara.com

Antton Aranburu - Hotzikara

«Disko honekin borobiltasuna nahi genuen, geruza ezberdinak, gozotasuna»

Hotzikara aldaketa uneetan ematen da, on eta txarretan. Txar batzuk ezagutu ditut, baina zer aldaketa on nahiko zenukete?

Normalean esperientzia txarrekin lotzen dugu. Baina gozamenarekin ere lotu daiteke. Adibidez, kanta eder batek ere sor lezake. Eta gu gustura, kontzertura gerturatutako lau katuei gozameneko hotzikara eragitea lortzen badugu.

Anestesiaren eta batez ere Ibonen ahotsaren eragina antzematen da. Zarauzko taldeak askori zabaldu dizkigu ateak?

Bai, Anestesiaren dosi handiak sartutakoak gara. Gainera, ahots guturalak Euskal Herrira zabaltzen asko lagundu duen taldea da, jendearen belarria egina dago. Hala ere, oraindik “musika oso ona, baina ahotsa...” bezalako komentarioak entzuten ditugu!



Zeren bila jo zenuten Fideleneara?

Musika estilo hauetan Mikel Kazalisek besteko esperientzia gutxik izango dute Euskal Herrian. Ez genekien gure kanten nolako indarra eduki zezaketen diskoan, eta harrituta gelditu ginen. Aupa Mikel!

S.O.S kanta existentziala da. Aje egun txar baten idatzia da?

Ez dakigu biharamuna geneukan edo lo hartu ezineko gaua zen,

baina betiko zalantzak eta ezinegonak dira. Askokosta zitzaigun letrari norabide bat ematea, oso gai zabala baita. Baita musika egokia bilatzea ere, baina gustura geratu gara.

Sepulturaren posterrak paretara itsatsita daude oraindik Usurbilgo lokaletan? Badirudi 1990eko hamarkadako taldeak dituzuela gustukoen...

Sepultura bezalako taldeen eragina nabarmena

da, haiek bultzatu gintuztelako musika ildo honetara, baina egia da azken urteotan irrati eta telebistatik iristen zaigun musikak ez gaituela guztiz betetzen; eta betiko talde eta estiloetatik irten nahi izanez gero, asko bilatu behar duzula zure kabuz. Hala ere, ez gaude 1990eko hamarkadan estankatuta, badira talde potente ugari ondorengoak ere. Adibidez, Willis Drummond. ■